

# JANGELA. Arauak

Jangela, LAUAIZETA IKASTOLA BHIk ikasle zein irakasleei eskaintzen dien zerbitzua da. Zerbitzu honen funtzionamendu egokirako, ezinbestekoa da erabiltzaile guztiok honako arau hauek betetzea:

- Elikagaiak dauden gunea denez, garbitasunari bereziki erreparatuko zaio.
- Bazkaria irauten duen bitartean eserita egon behar da, eta zerbait behar izanez gero, modu onez eta oihukatu gabe eskatuko da.
- Jangelan esku hutsik egon behar da: ez sakelakorik, ez musika tresnarik, ez aldizkaririk, ezta etxeko lanik ere.
- Bertako giroa lasaia izan behar da: ez abestirik, ez kolperik, ez jokorik, ezta oihurik ere.
- Gustuko jana ez denean ere, nahiz eta gutxiago izan, jan egin beharko da.
- Langileei zor zaien begirunea bermatuko da, eta ez da inongo errespetu faltarik onartuko.
- Janaria, bertan bukatu behar da, ezin da jangelatik kanpo atera.
- Mahaikide guztiek bazkaria amaitzerakoan, eta sukaldariak horrela agindurik, mahai tresnak, edalontziak eta esku paperak jaso beharko dituzte.
- Kalera lasai eta txandaka atera behar da.

Hauetako arauen bat hausten den bakoitzean, jangelako arduradunak tutorearekin batera erabakiko du hartu beharreko neurriak. Berauek komenigarria ikusten duten egoeretan elkarbizitza batzordean aztertu eta bideratu egingo da.

Jangelako funtzionamendu egokia eragozten duenak, zerbitzua erabiltzeko aukera galduko du.

2009/09/18